

D.maila Aipamen-saria

Xabier Muriel de Juan



Ordiziako Jakintza Ikastolan ikasten dut, nire afizioak aurrera eramateko ikastetxe aproposa. DBHko lehenengo mailan nabil eta 1999an jaio nintzen, apirilaren 12an, hain zuzen ere.

Idazlehiaketan parte hartzen dudan lehen aldia da eta aipamen-saria hau lortzeak asko pozten nau. Nik idatzi dudan istorioa zuen gustuko izatea espero dut

Kirola egitea asko gustatzen zait eta nire aisialdian horretan jarduten dut: Saskibaloia, atletismoa eta triatloiak gustuko ditut.

ORPHELINAT MAÇONNIQUE

“*Orphelinat Maçonique*“, hain zuzen, umezurztegiaren atean azaltzen den izena.

Egun iluna zen, egun tristea, egun horretan ez nintzen esnatu ohiko moduan. Lehenengo eguzki izpiak ez ziren nire leihotik sartu, eta nire aurpegi leuna ukitu ni esnatzeko. Egun horretan izugarritzko euri zaparrada botatzen zuen, 1926ko martxoaren 11 zen, bai, hamarkada hartako egunik euritsuena.

Jendeak zioenez aitaren antz handia nuen, baina amaren begi eta sudur antzekoak nituen. Ohetik altxatu eta sukaldera iristean, beti bezala, ama eta aita eztabaidatzen ari ziren. Amak bularreko minbizia zuen eta “kimio” saioak ordaintzeko diru asko behar zenez, amak zuen guztia egiten zuen, baina aitak ez zion dirurik eman nahi.

Txikiagoa nintzela, gogoratzen dut nire amarekin lo egitea gustatzen zitzaidala. Bere usain goxoa dastatuz, bere ile kizkurra ukituz eta nire aurpegiko pekak estaliz. Bere esku luzeak ni besarkatzen ninduten eta berehala hartzen nuen lo. Baina, bere gaixotasunak handik hilabete batzuetara betirako eraman zuen

Aitak ez zekien zer egin nirekin eta baztertu egin ninduen. Familia bat bizi zen etxeko atarian utzi, txirrina jo eta korrikan, bere neguko botinekin, alde egin zuen. Ni etxe hartako atean nengoen, nire ile beltzak oraindik beltzagoa zirudien eta nire begi berdeak inoiz baino tristeagoak. Etxe hura oso polita zen, kolore gorriko atea zuen. Egia esanda kale hartako etxeak, familia bakarrekoak eta guztiak kolore ezberdinetako ateak zituzten: urdinak, berdeak, horiak ... Baina nolabait, ate hartako kolore gorria nire oroimenean geratu da betirako ...

Hau guztia, nik lau urte eta erdi nituela gertatu zen. Peterson andrearen etxea zen eta berak lau ume zituen, ezin ninduen bere etxean hartu. Egun batzuk pasa nituen bere etxean eta azkenean, Londreseko umezurztegi pribatu batean utzi ninduen. Umezurztegia, nahiz eta, Londresen egon frantsesa zen.

Oraindik ere gogoan dut nire aitak musu ematen zidanean, bere bizar luzeak hazkura ematen zidala aurpegian. Eta Peterson andrearen etxean faltan bota nituen nire aitaren musu haiek eta baita nire amaren azken usain goxoa eta bere ile kizkurra.

Nire lehenengo hilabeteak oso gaizki pasa nituen umezurztegian, asko kostatu zitzaidan lagunak egitea. Horregatik, eguneroko bat idazteko ohitura hartu nuen eta ohe azpian gordetzen nuen, niretzat garrantzitsuak ziren gauzekin batera. Hango bizimodura ohitzen nindoan heinean, lagunak egin nituen. Nire lagunik hoberenak Steve eta Matthew ziren. Matthew ni baino urte bat zaharragoa zen, baina ez zen nabarmentzen. Umezurztegiko mutil guztiek ilea burusoil erara moztuta zeukaten.

Umezurztegia bitan banatuta zegoen: nesken erresidentzia eta mutilen erresidentzia.

Mutilak askotan saiatzen ginen nesken erresidentziara sartzen atzealdeko lorategiaren hesian zeukaten zulotik, nahiz eta, debekatuta egon.

Nire izena, Chat da, Chat Williams. Umezurztegiko bizitza ez zen oso ona: mojek erregelekin jotzen ziguten hatzetako puntetan eta irakasleak (apaizak) oso zorrotzak ziren. Erantzun bat bakarra gaizki emanez gero, arbelaren borrarrea jaurtitzen ziguten.

Nire istorioa umezurztegiko bosgarren urtean hasi zen. Gainerako mutilek, Stevek, Matthew-k eta ni izan ezik, nesken erresidentzian sartu nahi zuten. Guk ez genuen gogorik, egia esan, eta gure erresidentzian geratu ginen. Beraien plana martxan jarri zuten. Ordu bete zeramaten erresidentziaz kanpo. Gu, berriz, nire ohe gainean geunden hitz egiten, bat-batean, moja bat sartu zen:

-Non daude gainerako mutiak? – galdetu zuen oihuka.

Denok dardarka geratu ginen zer esan ez genekiela.

-Esaten ez badidazue erregela aterako dut, eta zuen hatzek izugarri sufrituko dute!- jarraitu zuen

-Zera ... Komunera joan dira -esan zuen Stevek.

Baina mojak zerbait sumatzen zuen eta ez zituen guk esandako gezur guztiak sinetsi.

-Badakit nesken erresidentzian daudela, etortzen direnean, esan zigortuta egongo direla ikastolako gela guztiak garbituz.- hori esan eta alde egin zuen.

Denok isil-isilik geratu ginen une batez eta handik gutxira gainerako mutiak sartu ziren:

-Gauza bat esan behar dizuegu, moja etorri da eta esan du nesken erresidentzian sartu zaretenez, zigortuta egongo zaretela.-azaldu nuen nik.

-Nola daki mojak nesken erresidentzian egon garela!?- oihukatu zuen koadrilan agintzen zuenak.

Bat-batean lurrera begira nengoela, niregana hurbildu zen eta ukabilkada bat eman zidan begian, gero lurrera bota ninduen eta denak ostikadak jotzen hasi ziren.

Lo hartzea izugarri kostatu zitzaidan, denek nitaz gaizki hitz egiten baitzuten.

Hurrengo goizean ez zidan inork hitz egiten, nire benetako lagunak bakarrik. Egun guztiz arraroa izan zen eta oso gaizki pasatu nuen.

Oheratzeko garaian, argiak itzali zirenean, ni lasai-lasai nengoen ohean etzanda eta, bat-batean, norbait baxu-baxu hitz egiten entzun nuen. Gero niregana hurbiltzen ari zela eta burua altxatzeko denborarik gabe, jotzen hasi zen. Ez nuen ezer ikusten eta ezin izan nuen asmatu nor zen.

Askok jo zidaten eta hurrengo goizean ubeldurek aurpegi guztia estaltzen zidaten. Emily mojak niregana jo zuen egun hartan

-Zer gertatu zaizu, Chat?

-Ez da ezer, egon lasai. Atzo jolastokian erori nintzen.

-Gauza bat esan behar dizut, Chat. Arazo txiki batengatik hasten den korapiloa handitzen, uzten baduzu, oso handia bihurtuko da eta gero konpontzea zaila izango da.

-Ongi da, kontatuko dizut.- erantzun nion buelta eman eta urruntzen hasi zenean.

Emilly mojak barre egin zuen. Emilly ez zen gainerako mojak bezalako, berak arazoak burua erabiliz konpontzen zituen eta ez erregelarekin joz, ezta garrasiak botaz. Ez nuen beste erremediorik izan eta dena kontatu behar izan nion. Emilly konpontzen saiatu zen gainerako mutilekin, baina bere ahaleginak ez zuen fruiturik eman.

-Kaixo mutilak, elizara ekarri zaituztet arazo bat konpontzeko- hasi zen hitz egiten.

Eta denak bata besteari begiratu izutu aurpegiekin. Elizako lurra mutil batzuen oinek etengabe kolpatzen entzuten zen eta oihartzuna egiten zuen.

-Denok dakizue nor den Chat, Chat Williams. Azken egunotan, konturatu naiz berarekin ez zaretela oso ondo moldatzen eta irakasleak ere konturatu dira klaseetan Ilargian egoten dela.

Emillyk gertatutako guztia kontatu zien gainerako mutilei, baina hauek ez zuten kasu zipitzik egin. Egun horietan despistatuta eta ubeldurekin jarraitu nuen. Gainera, mehatxatu egin ninduten esanez, berriro zerbait esaten banion Emillyri beso, hanka ... puskatuko zidatela.

Egoerak, egia esan, ez zuen onera egin eta baztertuta jarraitu nuen, nahiz eta, Matthew eta Stevek nire ondoan jarraitzen zuten, laguntzeko prest. Nik gehiago ezin nuen eta nire buruaz beste egitea besterik ez zitzaidala geratzen pentsatu nuen Gau hartan, goizeko ordubiak aldera jaiki egin nintzen amets gaizto baten ondorioz eta ezin izan nuen lorik hartu. Orduan, paper zati bat eta arkatza eskuan nuela, ohar bat idatzi nuen eta nire ohe azpian sartu nuen.

Hurrengo goizean, pentsamendu berarekin jarraitu nuen eta plan bat martxan jarri ere bai: gaueko hamarretan, neure buruaz beste egingo nuen, kanpandorretik behera eroriz.

- Gaur benetan arraro dago Chat- esan zion Matthewk Steve-i.

- Bai egia da.

- Zergatik ez dugu igartzen zergatik dagoen horrela?

-Eta nola jakingo dugu ba? Ez dakigu zer pasatzen zaion burutik.

-Ea ba, jar gaitezen pentsatzen. Oso ongi ezagutzen dugu, bizitza osoa elkarrekin daramagu eta.

-Badakit!- oihukatu zuen - bere oheko koltxoia azpian egongo da erantzuna, ziur nago.

Beraz bi lagunak nire ohe azpira abiatu ziren:

-Begira, ohar bat dago- xuxurlatu zuen Stevek, inork entzuten ez ziola segurtatuz.

Oharrean jartzen zuena irakurri zuten:

BIZITZAN ZEHAR OHARTU NAIZ...

1- Benetako lagunak, beti laguntzeko prest daudenak dira.

2- Bizitza aukeraz beteta dago, lehenengo aukera ez bazaizu ongi irteten, ez eman amore eta jarraitu aurrera.

P.D.: Gaueko hamarrak, elizako kanpandorra:

Zalantzarik gabe gaueko hamarrak arte itxaron zuten eta bost minutu falta zirenean, ohetik altxatu eta kanpandorrera abiatu ziren , eskailerak korrika igo eta teilatura iritsi arte.

Iritsi zirenean, ni bertan nengoen, lurrera beldurrez begiratur.

-Chat zertan ari zara, ez gero hori egin!- esan zidan Matthewk-

-Ni ez nago mundu krudel honetan bizitzeko prest.

Ez nuen nahi nire lagunak gehiago sufritzerik eta bi aldiz pentsatu gabe botatzera nindoan. Orduan, Stevek, bere bizitzako korrikaldi azkarrena egin zuen, nire uniformeko alkandoratik tira egin zidan eta aldi berean salbatu.

Ni negarrez nengoen eta erresidentziara eraman ninduten bertan lasaitzeko.

Azkenean, eskerrak Matthew eta Stevek salbatu ninduten! Eskoziako familia nahiko aberats batek adoptatu ninduen. Beraiekin oso gustura bizi izan nintzen urte askotan, unibertsitatean ikasi nuen eta benetako lagunak izan nituen..

Arthur